



Arantzazu Aterpetxea - Arantzazu-Oñati

Oñatiko erraiak eta soina

LH eta DBHko ikasleentzako zuzendutako hezkuntza programa



OÑATI
dabilen herria



Gipuzkoako Parketxeak



ARRIKRUTZ
oñatiko obak



EDE
FUNDAZIOA

arantzazuaterpetxea

<https://edefundazioa.org/hezkuntza-programak>



Oñati

Oñati, herrigune historiko eta historia handiko herria dugu, eta bertatik gertu dauden paraje naturalak ikur dira.

Gipuzkoan azalera handiena duen herria da OÑATI. 14 auzok eta bi elizatek osatzen dute. **Arantzazu** da auzunerik ezagunena, Arantzazu Santuategia dago bertan, erdigunetik 9 kilometrora, **Aizkorri-Aratz Natura-parkearen** magalean.

Aizkorri-Aratz mendilerroak Kantauri-Mediterraneoko uren banalerroko mendirik garaienak ditu, besteak beste, Aitxuri (1.551 m) eta Aizkorri (1.523 m). Horiek eta beste zenbait tontorrek mendigune ederra eta galanta osatzen dute eta erreferente dira euskal mendigoizaleentzat. Naturaguneak 16.000 hektarea hartzen ditu eta Arantzazuko Santutegian du sarrera edo "ate nagusia".

Kareharrizko mendi hauetan sortzen dira Gipuzkoako hiru ibai nagusi. Hemen oso nabarmenak dira fenomeno karstiko eta paisaia-fenomenoak. Bertan, besteak beste, lurpeko uren zirkulazioak sortutako 15 km-ko galeria-sare handiak daude. Ezagunak dira, adibidez, bisitak jasotzeko prestaturik dauden **Arrikruz-Oñatiko Kobak**.



Oñatiko erraiak eta soina

Arrikruz-Oñatiko kobak naturgune paregabeen kokatzen dira. Erkidegoko mendi gailurrik garaienen babesean, Gipuzkoako kobazulo-sistema zabalenetako bat da. Euskal Herriko paisaia karstikoaren erakuslehoi bikaina, mendez-mende urak haitzean zizelkatua.

Historiaurreko testigantzak aurki daitezke Arrikruz-Oñatiko kobetan, leize-hartz, errinozeronte iletsu, leize hiena edo orein erraldoiak. Baina, berezietan bereziena, kobazulo hauetan aurkituriko leize-lehoi baten hezurdura osoa.

Altxor geologiko hau ikastetxeen eskura dago beraien hezkuntz curriculumaren osagarri izan dadin. Ikastetxe bakoitzaren behar izanetara eta ikasleen adin desberdinetara egokituriko proposamen didaktikoak eskaintzen dira. Haur hezkuntzatik hasi eta batxilergo maila bitarte. Kobazuloan barneratzeaz gain, Arrikruz Interpretazio Zentruan landutako tailer, ibilbide eta bestelako jarduerak osatzen dute proposamen didaktikoa.

Kokapena:

Arrikruz-Oñatiko kobak
20567 Oñati, Gipuzkoa

www.oñatiturismo.eus



Arantzazu parketxea

Parketxea Aizkorri-Aratz natura-parkearen bihotzean dago, Oñatiko Arantzazu auzoan, izen bereko santutegian.

Hiru solairutan banatuta, natura-parkeko osagai aipagarrienak ezagutzera ematen ditu, hala nola, paisaia karstikoak, pago motzak, abeltzaintzaguneak... Horretarako, maketa erraldoia, teknologia berriez hornituriko erakusketa iraunkorra eta gela didaktikoak nahiz euskarri interaktiboak daude.

Parketxearen atzeko aldetik Arantzazuko ibilbide irisgarria irteten da, herritar guztiek, urritasunen bat dutenek barne, Aizkorri-Aratz natura-parkea eta haren ezaugarriak ulertzeko aukera izan dezaten. Hain zuzen, 1,6 km-tan zehar bi metroko zabalerako pasealekua dago, hormigoizko lurzoruarekin eta ikusmen ezintasuna dutenentzat pista distalarekin.

Kokapena:

Arantzazu auzoa, Gandiaga II eraikina, 20567 Oñati, Gipuzkoa



Arantzazu aterpetxea

Arantzazuko aterpetxea Oñatitik 10 km-ra dago. Aizkorri-Aratz Natura-Parke ikusgarriaren erdigunean kokatzen da eta Donostia, Gasteiz eta Bilbotik ordu betera dago.

Aterpetxean, 56 lagunentzako tokia dago, 4 eta 12 oheko logeletan banatuta. Behar bereziak dituzten pertsonentzat egokitutako gunea da. Aterpetxearen kanpo-aldean umeei zein helduei jolasteko gunek daude: Ziburuak, frontoiak eta aterpe zabalak.

Leku berezi honetan espiritualitateak, naturak, kulturak eta arteak aparteko presentzia historikoa daukate. Naturarekin lotutako eskaintza handia dago inguruan, baso eta mendiz inguratuta baitago Aterpetxea.

Kokapena:

Arantzazu auzoa, Gandiaga eraikina z/g,
20567 Oñati, Gipuzkoa

<https://www.arantzazuaterpetxea.com/>



Helburuak

1. Arrikruzeko kobak ezagutu eta bizipenaz gozatu.
2. Arantzazuko ingurunea ezagutu, bertako kondairak eta berezitasunak ikasiz.
3. Aizkorri-Aratz Natura Parkeko biodibertsitatea aztertu: bertako landareria eta animaliak ezagutzuz.
4. Aizkorri-Aratz Natura parkeko paisaia ezberdinak ezagutu.
5. Arantzazu inguruko aztarna arkeologikoak aztertu.
6. Arantzazun burutuko duten egonaldian zehar euskal kultura eta euskararen erabilpena sustatu.
7. Ingurunearekiko errespetua eta zaintza sustatu.
8. Desberdina suertatzen zaigun hizkuntza, herritar, bizi modu, ohitura eta kulturekiko errespetuzko jarrerak sustatu.



Ekintzen plangintza

2 egun

	LEHENENGO EGUNA	BIGARREN EGUNA
9:00		Gosaria eta motxila egin.
10:00	Ongi etorria: arauak, logelen banaketa	
10:30	Ibilaldia natura-parkean barrena: Iturri gorriko basoa, Arantzazu ezagutuz, meteorologo goiz batez...	Arrikruzteko kobak bisitatu
	Hamaiketako tartean	Hamaiketako tartean
13:30	Jantokia prestatu	Piknika kobetan
14:00	Bazkaria	
15:00	Parketxera bisita	Agurra
16:00	Orientazio-jolasa	
17:30	Askaria	
18:00	Jolas-toki (hezitzaierik gabe). Aterpetxeak baditu zenbait joku irakasleek erabili ahal izateko	
20:00	Jantokia prestatu	
20:30	Afaria	
21:00	Jokuak eta pelikula (hezitzaierik gabe). Aterpetxeak baditu zenbait joku eta telebista irakasleek erabili ahal izateko	

Ekintzen plangintza

3 egun

	LEHENENGO EGUNA	BIGARREN EGUNA	HIRUGARREN EGUNA
9:00		Gosaria	Gosaria eta motxila egin.
10:00	Ongi etorria: arauak, logelen banaketa		
10:30	Zikloaren arabera. Ibilaldia natura-parkean barrena	Zikloaren arabera. Ibilaldia: meteorologo goiz batez eta mitologia jolasa	Arrikruzeko kobak bisitatu
	Hamaiketako tartean	Hamaiketako tartean	Hamaiketako tartean
13:30	Jantokia prestatu	Jantokia prestatu	Piknika kobetan
14:00	Bazkaria	Bazkaria	
15:00	Zikloaren arabera. Parketxera bisita eta Orientazio-jolasa	Zikloaren arabera. Aukeran: jolasa ibilbide irisgarrian zehar, talo tailerra, lurralde antolamenduko tailerra (*sai arreen jarduera izan daiteke martxotik aurrera)	Agurra
17:30	Askaria	Askaria	
18:00	Jolas-toki (hezitzailerik gabe). Aterpetxeak baditu zenbait joku irakasleek erabili ahal izateko	Jolas-toki (hezitzailerik gabe). Aterpetxeak baditu zenbait joku irakasleek erabili ahal izateko	
20:00	Jantokia prestatu	Jantokia prestatu	
20:30	Afaria	Afaria	
21:00	Jokuak eta pelikula (hezitzailerik gabe). Aterpetxeak baditu zenbait joku eta telebista irakasleek erabili ahal izateko	Jokuak eta pelikula (hezitzailerik gabe). Aterpetxeak baditu zenbait joku eta telebista irakasleek erabili ahal izateko	



2023/24 ikasturteko prezioak

Egun 2 61 € / ikasleko *

Egun 3 96 € / ikasleko *

* Irakasleak salbuetsita

Gomendio eta garrantzizko informazioa

Komeni da irakasleak ibilaldietan parte hartzea.

18:00etatik aurrera, ez da begiralerik egongo.

Ikastetxeek erabilera libreko gela bat izango dute telebista eta jolas ezberdinekin, irakasleek bertan jarduerak, gaubelak edo bideo forumak antolatu ahal izateko. Era berean, aterpetxean frontoia eta estalitako patio handia dago. Egonaldia egin baino lehen, heziketa zentroak burutuko duen programa zehatza jasoko du.


Jarduerak zikloaren arabera diseinatuta daudenez, hauek ezingo dira aldatu.

EDE Fundazioa HEZKUNTZA-PROGRAMAK ATERPETXEETAN

Ikasleen curriculuma sendotzera bideratutako hezkuntza-programa anitzak eskaintzen ditugu, eta, hori bermatzeko, ikastetxeetatik zein hezkuntza-elkarteetatik datozen taldeen egonaldietarako orientatutako hainbat aterpetxe ditugu. Eskaintzen ditugun hezkuntza-programek honako ezaugarriak dituzte:

- **Euskalduna**, euskara gure proiektuaren hizkuntza nagusia izango da eta aterpetxean ematen den ahozko komunikazioan garrantzi handia izango du.
- **Ingurunean sustraitua**, proiektua burutzen den herriaren baliabideak kontutan hartuko dira.
- **Parte-hartzailea**, ikasleak izango dira esperientzia honen protagonistak eta hauen parte-hartze aktiboa sustatuko da.
- **Profesionala**, kalitatezko prozesuak ezarriko ditugu, beharrezko arreta bermatzeko eta etengabeko hobekuntza lortzeko.

Aterpetxeak **Suspertu** enpresak kudeatzen ditu, EDE Fundazioaren laneratze-enpresa, eta hainbat instalazioren (ostalaritza, jatetxeak) kudeaketaren bidez, enplegarritasun-zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko lan egiten du.





Ikasleak

- Ibilaldiak egiteko mendiko botak.
- Arropa egokia ibilaldirako: prakak, berokia...
- Euria egiten badu: Xira eta aterkia.
- Ura (kantinplora) eta janari apur bat ibilaldirako (hamaiketakoa).
- Lehen egunean bazkaria etxetik ekarri beharko dute; bigarreanean aterpetxean jango dute.
- Linterna txiki bat.

Aterpetxerako

- Lotarako zakua (azpiko maindirea ostalaritza zerbitzuak jartzen du).
- Higienarako beharrezkoak (toailak, hortz eskuila,...).
- GARRANTZITSUA: Ikasleek eksklusiboki aterpetxe barran erabiltzeko oinetako batzuk ekarri behar dituzte, kalean erabiliko ez dituztenak (etxeko zapatilak izan daitezke, edota kirola egiteko zapatila batzuk...). Hauek gabe ikasleek ezingo dute aterpetxeko geletan sartu.

Irakasleak

- Telefono mugikorra, edozein aldaketa edota ezusteko sortzen bada gidarekin komunikatu ahal izateko.
- Ikasleek beharrezkoak dituzten medikamentu espezifikoak (gidak beti oinarrizko botikina eramango du ibilaldietan).

Harremana *eta informazioa*



Arantzazuko Parketxea

943 782 894

arantzazu@gipuzkoanatura.eus



Arrikruz-Oñatiko kobak

943 082 000

arrikruz@onati.eus



Arantzazu aterpetxea

943 780 500 - 656790974

arantzazu@ateri.net